

Itzulpenaren soziologia itzulpen-ikasketetan: euskal itzulpengintzaren historia aztertzekeo ildoak

Miren Ibarluzea Santisteban
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Lan honen lehenbiziko atalean itzulpen-ikasketak diziplinaren bilakabidearen berri ematen da: itzulpena aztertzekeo eredu eta itzulpen-teorien errepaso egiten da; halaber, polisistemen teoriatik harago jota ikuspegi berriek ekarri dituzten «kultur bira» eta «bira soziologikoa» zein testuingurutan gertatu diren azaltzen da.

Artikuluaren bigarren atalean bira soziologikoa ekarritako ikerketa-ildoak azaltzen dira: alorrari buruzko gogoetak biltzeaz gain, ikuspegi soziologikoz egindako ikerketa nagusien berri ematen da.

Azkenik, itzulpenaren soziologiak euskal itzulpengintza aztertzekeo daukan balioa bistaritzen da, bakan-bakanak baitira ildo horretan egindako lanak. Ibarluzea 2017 lana oinarri hartuta, euskal itzulpengintzaren historiaren ikerketarako egokitasuna agerrarazten da, eta etorkizunean azter daitezkeen alorretako batzuk proposatzen.

GAKO-HITZAK: Itzulpen-ikasketak · Itzulpenaren soziologia · Euskal itzulpen-gintzaren historia.

Sociology of translation in translation studies: research trends for the study of basque translation history

In the first part of this paper we describe the evolution of Translation Studies as a discipline: we recall the main different points of view and translation theories and we explain in which context the cultural and sociological turn have occurred in order to overcome some aspects of the systemic theories.

In the second part of the paper, we focus on the sociological turn in Translation Studies: we recall the main research-trends, projects and different aspects considered in the area.

Finally, we try to show why and how is the sociology of translation useful to study Basque translation history, based on Ibarluzea 2017 doctoral research. Few works have been done in the area of Basque translation studies following the sociology of translation and we try to make visible some possible research topics.

KEY WORDS: Translation studies · Sociology of translation · Basque translation history.

1. Itzulpen-ikasketak¹

1.1. Diziplina berri baten historia, ikuspegi eta teoria nagusiak

Historian zehar itzulpenari buruz gogoeta egin duten autoreak asko izanagatik, itzulpen-ikasketak, *Translation studies* edo *Traductologie* deritzon diziplina berriki baino ez da egituratu zientzia-alor bereizi gisa; izan ere, hizkuntzalaritza aplikatuaren arabera aztertzen eta lantzen zen itzulpena 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, eta 1970eko hamarkadan (eta batez ere 1980koan) hasi ziren itzulpen-ikertzaileak itzulpengintza bera alor bereizitza hartzen, ikerketa-eremuak zehazten eta teoriak garatzen (Baker, 2009: 277-280). Laburbilduz, esan daiteke 1970eko hamarkadan sortu zirela, 1972an, azaldu baitzuen lehenbizikoz Holmes ikertzaileak diziplinaren mapa akademikoa, zeinari gaur egun, alde edo moldez, oraindik ere jarraitzen zaion. 1980ko hamarkadan garatu eta finkatu egin ziren ikasketok, eta 1990ekoan hedatu edo globalizatu (Bassnett, 2002).

Itzulpen-ikasketen adarrei, azpialorrei edo ikergaiei gagozkielarik, Bakerrek itzulpengintzari buruzko entziklopedian ondo laburbiltzen duenez (2009: 277-280), Holmesek (1972) bi adar nagusitan sailkatu zuen itzulpen-ikasketen diziplina: itzulpen-ikasketa hutsak eta itzulpen-ikasketa aplikatuak². Holmesek proposatutako egitura hori hartu izan dute ardatz, eta partez erabili zein osatu, besteak beste, Toury, Pym, Hatim, Munday edo Snell-Hornby ikertzaileek, eta gaur eguneko ikerketek 1972ko ikuspegi hura eraldatu dute (Munday, 2009: 12).

Itzulpen-ikasketen ikergaiak askotarikoak dira eta, askotarikoak dira, halaber, ikergaiei ekiteko ikuspegiak ere. Itzulpen-ikerketarako hainbat eredu ditugu, eta eredu bakoitzak molde jakin batean mugatzen du itzulpengintzaren esparrua; alegia, itzulpenaren alderdi jakin bat nabarmatzen du. Nolanahi ere den, eta dibergentzia teoriko eta metodologikoak egon badaude ere, eredu guztiak dira egoki eta elkarren osagarri. Guidère-k *Introduction à la traductologie* eskuliburuan (2010), esaterako, honelaxe sailkatzen ditu itzulpen-ikerketarako ereduak: 1) eredu linguistikoak, 2) eredu hermeneutikoa, 3) eredu ideologikoak, 4) eredu poetologikoa, 5) eredu testuala, 6) eredu semiotikoa, 7) eredu komunikazionalak eta 8) eredu kognitiboak. Itzulpengintza aztertzeke askotariko ereduaren aldean, edo itzulpengintza beste jakintza baten adar gisa aztertzen duten ikuspegiaren aldean, itzulpen-teoriek jakintza beregaina balitz bezala aztertzen dute itzulpena, eraikuntza kontzeptual osoak dira, eksklusiboak, itzulpenean soilik zentratutako gogoeta helburu dutenak. Guidèrek (2010: 69), esaterako, teoria hauek aipatzen ditu: interpretazioaren teoria, akzioaren teoria, *skopos* teoria, jokoaren teoria eta polisistemen teoria.

Guidèrek ondo laburbiltzen duenez (2010), interpretazioaren teoria Parisko eskolak sortu zuen: Danica Seleskovitch eta Marianne Lederer dira teoriaren aitzindariak. Seleskovitchek, bere interpretazio-lanak emandako esperientziatik abiatuta, itzulpena azaltzeko hiru pausoko eredu proposatu zuen (interpretazioa, deberbalizazioa eta berradierazpena). Gerora, Deslislek garatu egin zuen. Ledererrek, bere aldetik, hiru

1. Argitalpen hau MHLI (Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan) IT 1047-16 ikertaldea egiten ari den US 17/10 (UPV-EHU) eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa-proiektuen barruan egina da.

2. Holmesek proposatutako egituraren azalpena laburbiltzen du, halaber, Mundayk (2009: 9-13).

postulatu proposatzen ditu: «dena da interpretazioa», «ezin dugu interpretatu gabe itzuli» eta «berradierazpenak ezaugarritzen du itzulpen oro». Teoria horren arabera, oso garrantzitsua da testu jakin bat zer mailatan kokatzen den aztertzea: hitza, esaldia edo testua. Izan ere, Ledererren ustez benetako itzulpena testu-mailan baino ez da gertatzen; alegia, diskurtso eta testuinguru batean. Interpretazioaren teoria xede-hizkuntza eta kulturara bideratutako teoria da (Guidère, 2010: 69).

Guidèren (2010) idatziei jarraituta, akzioaren teoriaren jatorria Alemanian dago, hain zuzen ere Holz-Mänttären lanean. Teoria horren egitekoa itzulpen funtzionalak sustatzea da, eta kultur oztopoei aurre egitea: itzultzaileak xede-hizkuntzan onartzeko moduko mezua sortu behar du; beraz, itzultzailearen egitekoa xede-testuaren helburuaren araberakoa da, eta azkenengo produktua funtzionalitatearen arabera ebaluatu behar da: funtzioak ezaugarritzen du itzulpen-prozesua. Holz-Mänttärrik honako rol hauek bereizten ditu funtzioa definitzeko: itzulpenaren abiarazlea, eskaria egiten duena, jatorrizko testuaren ekoizlea, itzultzailea, xede-testuaren aplikazioa, azken hartzailea eta zabalkundea egiten duena. Holz-Mänttären ustez, itzultzaileak beti negoziatzen dezake eskari-egilearekin, eta itzultzailearena da testuak funtzionatzearen erantzukizuna. Kultur produktu guztietarako balio luke, gainera, jarduteko modu horrek (Guidère, 2010: 71-72).

Skopos teoriari dagokionez, Vermeer (1970eko hamarkadan) jo behar dugu aitzindaritzat. Teoria horren sustatzaileen artean daude, halaber, Nord eta Ammann. Reissek ere ekarpen garrantzitsua egin zion teoriari. Testu pragmatikoetan eta horiek xede-hizkuntzan eta kulturaren duten funtzioan jartzen du arreta teoria horrek; bada, alde horretatik, akzioaren teoriaren marko epistemologiko bera darabil; baina kasu honetan, azken hartzaileak baldintzatuko luke itzulpena (Guidère, 2010: 72-73).

Jokoaren teoriak Neuman matematikariak proposatutako eredua du oinarri. Hainbat interes dauden gatazketan galerak eta irabaziak neurtzean datza, galerak minimizatzean eta irabaziak optimizatzean, alegia. Levy eta Gorfée ikertzaileek jarraitu izan diote teoria horri euren lanetan (Guidère, 2010: 74).

Beste alde batetik, ez ditzagun ahaztu filosofiak itzulpenaren ikerketari irekitako bideak: Steiner, Pound, Benjamin eta Derridaren ekarpenak nabarmen daitezke teoria filosofikoen arloan. Esanahiaren interpretazioa aztertzen du Steinerren «mozio hermeneutikoak», esaterako. Pounden itzulpenek eta teoriak itzulpena indartzeko hizkuntza-estrategiak azalarazten ditu. Benjaminek, bere aldetik, itzulpen literalaren bidez lor daitekeen hizkuntza purua du ardatz. Derridak dekonstruzioa du oinarri, eta itzulpenaren eta jatorrizko testuaren arteko aldea ere zalantzan jartzen du (Munday, 2008: 162-177). Denak ere itzulpen-praktika eta -esperientzietatik zein halako esperientzietatik buruzko gogoetatik eratorritako teoriak dira.

Polisistemen teoria Even-Zoharrek 1970eko eta 1980ko hamarkadetan garatutako kontzeptuen mapan datza: elkarren artean elkarreragiten duten eta elkarren barruan dauden sistemen multzoan, sistemetako bat da itzulpena. Hala, itzulpen-sistema, esaterako, literatur sistemaren barruan dago, eta hori sistema artistikoaren barrenean, eta, halaber, erlijio-sistemaren eta politikoaren zati ere bada. Sistemen arteko elkarreraginaz gain, sisteman bertan ere tentsioak sortzen

dira erdigunearen eta periferiaren artean. Even-Zoharren ustez, itzulitako literaturak posizio periferikoa du; kontrakoa gertatzen da, ostera, hiru kasutan: literatur sistema jakin bat gaztea denean, nazio boteretsuago baten mende dauden literatur sistemen kasuan eta, azkenik, krisia bizi duten literatur sistemen kasuan. Itzulitako literaturaren posizioa boterearen eta kultur sistema jakin baten ezaugarrien arabera da, beraz. Honako hauek dira teoriaren ondorio praktikoa edo teorikoa nagusiak: sistemen artean egiten da itzulpena (eta ez hizkuntzen artean); itzulitako obra xede-kulturaren ezaugarrietan oinarrituta aztertu behar da; itzulpen-prozedurak ez dira sistema linguistikoen arabera aztertu behar, ezpada kultur testuinguruak ezarritako arauen arabera. Touryk garatu zuen Even-Zoharren teoria traduktologia deskriptiboaren ildotik (Guidère, 2010: 75-76)³.

1.2. Ikerketa-joera berriak polisistemen teoriatik haratago: kultur bira eta bira soziologikoa

Polisistemen teoriari hainbat hutsune egotzi izan zaizkio: literatur itzulpenean zentratuegi dagoela, deterministegia dela, itzulpenean eragiten duten faktore sozialak aipatu arren ez duela ematen indar-faktoreen dinamika bera deskribatzeko markorik, xede-kultura baino ez duela kontuan hartzen itzulpen-sistema jakin bat deskribatzeko, eta, Mundayk dioen moduan (2008: 115), itzulpena baldintzatzen duten ezaugarriak jatorrizko kulturatik ere etor daitezke (Munday, 2008: 115).

Izan ere, Touryk proposatzen duen teoriari jarraikiz, xede-sistemaren arabera aztertzea da itzulpena; alabaina, oso kontuan hartzekoak dira, besteak beste, jatorri-sistemak sustatutako itzulpena, kanporako egindako itzulpenak jatorri-sisteman duen eragina edo zenbait itzulpenen jatorri- eta xede-sistemak berberak direla. Mundayk azaltzen duenez, teoria sistemikoek itzulpenaren izaera soziala kontuan hartu bai, baina ez dute sistema teorikoa koherente baten arabera deskribatzen (Munday, 2008: 10).

Mugak muga, polisistemen teoriak funtsezko oinarria eskaini du itzulpen-ikasketetan hainbat eta hainbat ikerketa egiteko hizkuntzaren parametroetatik haratago, jarraian ikusiko dugun moduan.

Snell-Hornby (1990) ikertzaileak *cultural turn* gisa definitutako bidean, mugarrira izan zen *Translation, History and Culture* (1990) lana, non Bassnett eta Lefevere itzulpen-ikertzaileak hizkuntzatik haratago doazen: fokua hizkuntzaren eta kulturaren elkarreraginean jarrita, kulturak itzulpenean duen eragina eta inpaktua

3. Euskal itzulpengintzaren eremuan, polisistemen teoriari jarraituz lan egin izan dute, adibidez, López Gasenik 2000. urteko *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: eraginak, funtzioak eta itzulpen-estrategiak* doktorego-tesian eta Baranbonesek 2009ko *La traducción audiovisual en ETB1: estudio descriptivo de la programación infantil y juvenil* doktorego-tesian. Halaber, Manterolak 2012an defendatu zuen *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia; Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa* doktorego-tesia, eta Zubillagak 2013an *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez* doktorego-tesian. Sanzek ere ildo berean aurkeztu zuen bere doktorego-tesia: *Unitate fraseologikoen itzulpena: alemana-euskara. Literatur testuen oinarritutako analisia* (2015). Ibarluzeak argitaratutako *Literatur itzulpenaren kritika. Lehen pausoak: dibulgazio-kritikaren azterketa* (2011) ikerketa-lana ere teoria horren esparruan kokatzen da.

aztertzen dute; era berean, besteak beste antologiak, iruzkinak, egokitzapenek eta erakundeak literatura jakin batez sorrarazten duten irudia aztertzen dute.

Kultur ikasketak oinarri hartuta, itzulpenaren kultur ikerketak hainbat alor biltzen ditu, hala nola itzulpena eta berridazketa, itzulpena eta generoa, edo itzulpena eta postkolonialismoa. «Ideologia», «boterea», «manipulazioa» funtsezko kontzeptu bihurtzen dira itzulpenen azterketan (Munday, 2008: 125). Manipulazioaren eskolak, esaterako, eredu teorikoen eta kasu-azterketen elkarreragina nabarmenduta, itzulpenak deskribatzeko eredu berriak proposatzen ditu, Lambert eta Van Gorp tarteko (Munday, 2008: 122). Lefeverek, bere aldetik, literatur eta kultur sistemetako botere-harremanak eta ideologiak, literatur itzulpenean zuzenean eragiten dutenak, aztertzen ditu. Bestalde, itzulpen-sistema kontrolatzen duten hiru eragileak aletzen ditu: literatur sistemako profesionalak (hala nola kritikariak, irakasleak eta itzultzaileak, denak ere ideologia jakin batekoak), literatur sistemaz kanpoko babesa (garai historiko jakin bateko pertsonaia boteretsua, erregea, esaterako; argitaratzaileak, klase politikoa...) eta poetika nagusiak (literatura eta literatur ideiak zabaltzen dituzten erakundeak, akademiak eta abar) (Munday, 2008: 126 & 129). Teoria feministek paralelismo bat egiten dute itzulpenaren gutxiespen-egoeraren eta emakumearen artean, itzulpena beti jo izan baita jatorrizko testua baino maila gutxiagokotzat. Bada, ildo horretan, mugarrria da Simonen lana: Kanadako itzultzaile feministen proiektuak azalarazten ditu, generoaren markatzaileak proposatzen, emakume itzultzaileen lanak balioesteko saioa egiten... (Munday, 2008: 129)⁴. Botere-harremanak generotik haratago ere azter daitezkeenez gero, kontzeptu berriak agerrarazten dizkigute postkolonialismoaren teorietan oinarritutako ikerketek, adibidez, hizkuntzen arteko estatus ezberdintasunak, Mendebaleko itzulpen-teoriaren nagusitasuna, interbentzionismoa, kulturartekotasuna, hibridotasuna, kulturen arteko distantzia, kolonien eragina, zentsura eta abar. Hori da Spivak, Nirajana edo Croninen gisako ikertzaileek jorratutako gaien funtsa (Munday, 2008: 133)⁵. Halaber, itzulpenen harrera eta kritika aztertu izan dira, bai modu sinkronikoan, bai modu diakronikoan. Horrez gain, itzulpenaren eragile zentrala denez gero, itzultzailearen beraren posizioa eta inplikazioa aztertzeko bidean, itzultzailearen ikusgaitasuna, rola eta etika nabarmendu dituzte beste ikerketa batzuek. Venutik nabarmendutako kontzeptuak dira ikusgaitasuna, testua etxekotzea edo atzerriratzea, itzulpen erresistentea... (Munday, 2008: 144-145). Itzultzailea inguratzen duen gizartean fokua jartzetik, itzultzailearengan beragan fokua jarri eta itzultzailea eragile aktibotzat jotzera igaro gara⁶.

4. Irakurleak gaiari buruzko zenbait artikulua aurki ditzake euskaraz *Senez* aldizkarian; ikusi, adibidez, Arrizabalagak *Senez* 32 (2007) alean ekarritako «Itzulpena eta feminismoa» artikulua (online ere eskuragarri dago EIZIren webgunean), edo Reimondezen beste artikulua hau, Montoriok euskarara ekarria: «Itzasargiak iluntasunean. Ideologia eta itzulpengintza: ikuspegi feministak eta postkolonialak» (*Senez*, 44, 2013; online eskuragarri EIZIren webgunean).

5. Ikerketa-ildo horien berri jaso dezake irakurleak euskaraz Jakaren *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan* doktorego-tesiko «1.3.2.2. Itzulpenaren teoria postmodernoak» atalean (2012). Online eskuragarri dago Euskaltzaindiaren webgunean: <<http://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/75892.pdf>>.

6. Euskal itzulpengintzaren eremuan Jakak landu izan du gaia. 2013an eskaini zuen, UEUren ikastaro baten barruan, «Itzulpenaren boterea eta erresistentzia-ahalmena: teoria postkolonialen ekarpena» hitzaldia.

Ikerketa-ildo horiekin guztiekin batera, modu paraleloan (edo haien bidez) garatu da itzulpenaren soziologia ere; izan ere, itzulpena testuinguru historiko eta soziokultural jakin batean gertatzen dela nabarmendu izan dute. Bada, soziologiaren ekarpenari esker ireki dira metodologia-ildo berriak, delako «testuinguru» hori kontzeptualizatzeko, zehazteko eta deskribatzeko. Eta hargatik esaten da itzulpen-ikasketek bira soziologikoa bizi dutela, eta itzulpen-ikasketek aurretik bizi izandako paradigma-aldaketei beste bat gehitu zaiela, bira soziologikoa, alegia, aurretik beste jakintza-arlo batzuek utzitako sedimentuen gainean eraikitakoa, kultur birak lurra prest-prest utzi ostean metatutakoa (Grutman, 2009: 136).

Grutmanek azaltzen duenez, 1985-1995 tartean itzulpen-ikasketak eta Touryk itzulpengintzara ekarritako Even-Zoharren polisistemen teoriaren eredu parekatuta zeudela ematen zuen; alegia, itzulpen-ikasketak eta polisistemen teoria bat zirela, askorentzat bereizezinak (Grutman, 2009: 137). Edonola ere, ikuspegi polisistemikoaren ezaugarrietako bat da beste eredu sistemiko batzuekin lotzeko eta integratzeko ahalmena; beraz, ezin genezake deskribatu teoria polisistemikoen eta soziologikoen arteko harremana norgehiagoka gisa, ezpada bata besteari gehitzen zaion sedimentu-geruza gisa, edo, bestela esateko, bata bestearen luzapen gisa. Ondo kontuan hartu behar da, edonola ere, ezberdintasun epistemologikoak egon badaudela bi ereduaren artean: ezin dugu, adibidez, Bourdieu soziologo frantziarra sistemen teorizatzaile bihurtu, ez eta Even-Zohar ikertzaile israeldarra soziologo ere (Grutman, 2009: 142-143). Halere, bi ereduak badituzte antzekotasunak, eta, esaterako, «sistema» eta «eremu» kontzeptuak biak ala biak dira erlazionalak eta agonistikoak edo borrokazkoak (Grutman, 2009: 144-147): bi kontzeptuek deskribatzen dituzte gatazka-unibertsoak. Baina, bata bestetik bereizte aldera, kultur ikerketak fokua ideietan jartzen du, eta ikerketa soziologikoak, aldiz, pertsonen jarrera behagarrian (Chesterman, 2006: 9): «The sociologists focus more on the actions, and the cultural studies people on the ideas» (Chesterman, 2006: 11). Hiru testuinguru mota bereizten ditu Chestermanek: kultur testuingurua (besteak beste balioak, ideiak, ideologiak, tradizioak dira fokua), testuinguru soziologikoa (pertsonak dira fokua: pertsonen jarrerak, jarduteko moduak, pertsonen osatutako taldeak...), eta testuinguru kognitiboa (adibidez, prozesu mentalak eta erabakiak hartzeko prozesuak dira fokua). Itzulpen-ikasketetan lantzen diren hainbat testuinguru, baina, mugetan kokatzen dira, pluralak dira (Chesterman, 2006: 11).

Polisistemen teoriari egindako kritiketako bat izan da oposizio binarioetarako edo dikotomietarako gehiegiko joera (adibidez, kanonikoa vs ez-kanonikoa, erdigunea vs periferia). Soziologiaren ikuspegitik ez da egundo argi geratu zein diren sistemaren barruko indarrak polisistemen teoriek definitutako eskeman. Izan ere, sistema batean kontsumitzaileek kontsumitzen dituzte ekoizleek ekoiztutako produktuak. Produktuen erreperitorio bat lortzen da, eta erakundeak zehazten du produktuen balioa. Produktuak transmititzeko, merkatu bat egon behar da. Horiek guztiak ez daude isolaturik, interakzio-sistema batean baizik (Wolf, 2007: 7).

Teoria batean egokiro integratu ez den arren, ezin ukatuzko kontua da itzulpen-ikasketetan lehenago ere kontzientzia soziala egon dela. Halaxe ikus daiteke Venutiren hitzotan: «The viability of a translation process is established by its

relationship to the cultural and social conditions under which is produced and read» (Venuti, 1994:18); bai eta Hermansen hurrengootan ere:

Translation is recognized as a cultural practice interacting with other practices in a historical continuum. The workings of translation norms, the manipulative nature of translation and the effects of translation can all be slotted into a broader sociocultural setting. The study of translation becomes the study of cultural history (Hermans, 1999: 102-119 *apud* Grutman, 2009: 137).

Hortaz, esan dezakegu itzulpen-prozesua, besteak beste, baldintzatuta dagoela bai maila kulturean, bai maila sozialean. Kultur mailarekin lotu izan dira boterea, menderakuntza eta mendekotasuna, interes nazionalak, erlijioa eta ekonomia; eta maila sozialarekin, ostera, itzulpen-prozesuan parte hartzen duten eragileak. Halaxe azaltzen du Wolf irakasleak (2007: 4), eta dikotimizazioaren arriskuaz ohartarazten digu: dioenez, sarri bi mailak lotuta daude, eta ezin daiteke batez hitz egin besteaz hitz egin gabe (*idem*). «Bira soziologikoaz» hitz egin ote daitekeen ere zalantzan jarzen du, eta itzulpen-ikasketen diziplinartekotasunaren aldarria egiten du (*idem*: 6).

Edonola ere, badirudi Bachmann-Medickek proposatutako pausoetan aurrera eginda, bira soziologikoa gertatzen ari dela. Honela azaltzen du Wolfek (2010):

In terms of Bachmann-Medick's criteria for the existence of a «turn» in the humanities, the stages outlined above seem to have already been taken by what has been labeled a «sociological turn»: the categories developed, partly drawing on approaches elaborated in sociology, testify to refined methodological tools enabling the conceptualization of the social conditions underlying the translation process also in a transdisciplinary perspective. This is proven by a number of works which have contributed to the emergence of a «sociology of the translation process, the construction of a public discourse on translation and the self-image of translators, among other crucial issues (see. e.g. Gouanvic 1999, Wolf & Fucari 2007; Pym, Shlesinger & Simeoni 2008) (Wolf, 2010: 34).

2. Itzulpenaren soziologia

2.1. Itzulpenaren soziologia: ereduak, ikuspegiak eta ikergaiak

Ez dira bakanak itzulpenaren alderdi soziologikoak lantzeko egin izan diren ikerketak eta gogoetak, bai itzulpen-ikasketen arabera, bai beste diziplina batzuen barruan. Hain zuzen ere, itzulpenaren alderdi soziologikoari buruzko lan horiek denek ezarri dute oinarria egun «itzulpenaren soziologia» deritzon ikerketa-adarra eraikitzeko.

Gaur egun, gero eta arreta handiagoa egiten zaie itzulpenaren ikerketan itzulpen-eragileen eta erakundeen sareei, botere-harremanen interakzioari, itzulpenari buruzko diskurtso sozialei... eta jakitun gara horiek denek itzulpen-praktiketan eta prozesuan duten eraginaz. Izan ere, itzultzea jarduera soziala da, gizarteak doitutakoa: jarduten duen itzultzailea ez dago isolatuta, gizartetik at; itzultzailea izaki soziala da, baina, horrez gain, gizarte-erakundeek ere itzulpen-fenomenoari bete-betean eragiten diote, itzulgaien hautaketan, zabalkundean zein itzulpen-estrategietan, esaterako.

Halaber, itzulpenak berak eragin jakin batzuk ditu gizartean, itzultzaileak funtzio eta rol jakin batzuk betetzen ditu; bestalde, ezin ahaztuzkoa da itzulpen-ikasketetan ari den ikertzailea ere gizartearen subjektua dela (Wolf, 2011: 1-4).

Itzulpenaren alderdi soziologikoarekin lotutako hainbat ikergai aipatu ditugu dagoeneko (eragileen eta erakundeen sareak, itzulpenari buruzko diskurtsoa, gizarte-erakundeen eragina itzulpenean, itzulpenaren eragina gizartean, itzultzaileen eta itzulpenaren funtzioak); bada, aurrekoei gehi dakizkieke Chestermanek (2006: 9) zerrendatzen dituen hauek ere: talde-itzulpenari buruzko azterketak, taldean egindako zuzenketa-prozesuen azterketa, ko-edizioa, itzulpen-politikak, itzultzaile-sareak, itzultzaileek tresna teknologikoak baliatzeko moduak, itzultzaileen mugikortasuna eta diskurtsoa, akreditazio-sistemak. Chestermanen ustez, oraindik ere ikerketa gutxi egin dira horiek lantzeko (*idem*), nahiz eta ez diren bakanak orain arte egindako lanak.

Ikuspegi postkolonialaren, genero-ikasketen zein manipulazio-eskolaren bidetik, hainbat lanen bidez nabarmendu eta aztertu da itzulpenaren alderdi soziologikoa (Chesterman, 2006: 10). Esate baterako, Simonek *L'inscription sociale de la traduction au Québec* izeneko lana argitaratu zuen 1989an.

Polisistemen teorian oinarritutako hainbat ikerketaren bidez ere sarri zabaldu dira itzulpenari buruzko hausnarketak auzi soziologikoetara. Kasurako, Lefeverek babes-erakundeetan jarri zuen arreta, eta argitaratzaileen eta *sponsors* eraginaz aritu zen, 1992an egindako lan batean (Chesterman, 2006: 12). Simenonik («The Pivotal Status of the Translators Habitus» argitaratu zuen 1998an), bere aldetik, polisistemen teoria berrinterpretatu zuen, Bourdieuren «habitus» kontzeptua integratzeko (Gouanvic, 2005: 149-150). Simenoniz gain, asko dira Bourdieuren kontzeptuak aplikatu izan dituztenak: Kalinowskik (1999an aurkeztu zuen tesia), esaterako, Bourdieuri jarraikiz egiten du itzulpengintzari buruzko gogoeta: itzultzaileen ibilbide intelektuala aztertzen du, besteak beste. Cassanovak, *République mondiale des Lettres* liburuan (1999) Parisko indarrek eragindako literatur menderakuntzari buruzko gogoeta egiten du (Gouanvic, 2005: 149-150). Inghilleri ikertzaileak, berriz, «Habitus, field and discourse. Interpreting as a socially situated activity» artikulua eman zuen 2003an, bai eta «Mediating zones of uncertainty: interpreter agency, the interpreting habitus and political asylum adjudication» ere, 2005ean. Angelellik osasun-arloko interpreteen inguruko lanak egin izan ditu, ikusezintasunaren mitoa hautsi nahian eta interpretearen boterea nabarmenduz.

Zer esanik ez, Bourdieuren eskolako jarraitzaileek ere bidea zabaldu dute itzulpenaren soziologian: Heilbron eta Sapiro soziologoek hainbat lan argitaratu dituzte itzulpen-eremua ardatz hartuta; adibide baterako, *Traduction: les échanges littéraires internationaux* alea *Actes de la Recherche en Sciences Sociales* aldizkarian (2002; 144. zenbakia). Jakintzaren nazioarteko transferentziarako itzulpenaren teoria soziologikoa funtsezkotzat jota, literatur itzulpenaren soziologiaren garapen-programa bat aurkeztu zuten Bacheleitner eta Wolf ikertzaileek 2010ean (Wolf, 2011: 13-16).

Hein handi batean, Bourdieuren teoria itzulpen-ikasketetan aplikatzea teoria deskriptiboak eta polisistemen teoria berrebaluatzeko bidea izan da; izan ere,

kontzeptu sendoagoak eskaintzen ditu itzulpen-prozesuan eta produktuan eragiten duten baldintza sozial eta kulturalak deskribatzeko. Horrez gain, Bourdieuren bidetik, itzultzaileengan eta interpreteengan jarri da fokua, eta gizarte-eragile eta kultur eragile aktibotzat jo dira. Baina, batez ere, agenteen eta egituraren arteko harremana modu teorikoan azaltzeko ekarpena egin dio Bourdieuren teoriak itzulpen-teoriari (Inghilleri, 2005: 125-126).

Bourdieuren teoriari jarraikiz itzulpen-eremua objektibizatzen saiakera egin gura izanez gero, lehenengo pausoa da eremuaren berariazko ezaugarriak, ezaugarri intrintsekoak, definitzea. Itzulpen-eremua objektibizatzen funtsezko tresnak dira «eremu», «habitus», «kapital» zein «ilusio» kontzeptuak, baldin eta itzulpen-eremuaren beraren egitura, beste eremu batzuekiko harremanak, itzultzaileen praktikak, eragileen zein obren posizioak eta balioak, motibazioak, lehiak, gatazkak eta interesak ulertuko badira (Inghilleri, 2005: 129-30):

Bourdieu's theorization of the social suggests that acts of translation and interpreting be understood through the social practices and relevant fields in which they are constituted, that they be viewed as functions of social relations based on competing forms of capital tied to local/global relations of power, and that translators and interpreters, through the workings of the habitus and illusio, be seen as both implicated in and able to transform the forms of practice in which they engage. In this way, Bourdieu offers a sound theory of practice to the developing sociological paradigm in translation and interpreting studies and a solid reminder of the social relevance and responsibility involved in both research and practice in the field (Inghilleri, 2005: 143).

Heilbronek eta Sapiroko ondo azaltzen dutenez (2002), itzulpenaren soziologiak itzulpenen ekoizpen- eta zirkulazio-prozesuetako harreman-sareak aztertzen ditu. Itzulpenaren soziologia batez ere bi arloren barruan biltzen da, hain zuzen ere itzulpen-ikasketen eta kultur transmisioaren barruan. Itzulpen-teoria soziologikoaren arabera, hortaz, kontuan hartzekoak dira herrialdeetako kultur politikak (inportaziokoak eta esportaziokoak); berebat, gogoan hartzekoak dira itzulpenean eragiten duten erakunde eta agenteak (adibidez: enbaxadak, kultur institutuak, itzulpen-erakundeak, herrialde bateko literatura ezagutarazten duten aldizkariak, nazioarteko azokak, literatur agenteak, argitaletxeak, autoreak, itzultzaileak, kritikariak, inprimatutako testuen kontrola, edizio-munduaren egitura, bildumak eta sariak). Itzulpenaren harrera baldintzatzen duten faktoreak izango dira, gainera, jatorrizko kulturako errepresentazioak eta hizkuntza-egoerak. Hala, itzulpenaren funtzioak askotarikoak izan daitezke: trukerako bitarteko izatea, funtzio politikoa eta ekonomikoa izatea, legitimazio-bidea, kontsakrazioa, literatur kapitala pilatzea... Funtzio askotarikoak ere egon daitezke, jakina (Heilbron & Sapiro, 2002).

Luhmannen sistema sozialen teoria ere aplikatu izan da itzulpen-ikasketetan, Hermans zein Poltermann ikertzaileen eskutik, adibidez. Luhmannen arabera, sistemak komunikazio-egintzez osatuta daude, eta itzulpena egintza horietako bat da (Chesterman, 2006: 13).

Itzulpen-historiografian egindako hainbat lanek ere itzultzaileen rolari erreparatu diote; horixe da, esaterako, Pymen *Method in Translation History* (1998) lanaren

eta Deslisle eta Woodsworth (1995) ikertzaileen *Translators through History* (1995) lanaren ardatza (Chesterman, 2006: 15).

Bestalde, diskurtso kritikoaren eta pragmatikaren bidetik aztertu izan dira itzulpen-ikasketekin lotutako hainbat alor soziologiko; adibidez, testuaren eta diskurtsoaren alderdi politikoaren eta ideologikoaren arteko harremanak deskribatzen dira alor horietan. Brisetek (1990), esaterako, Quebeceko antzerki itzuliei buruzko diskurtsoa aztertu zuen, eta gisa horretako ikerketek itzulpenen eragin sozialez pentsatzera garamatzate (Chesterman, 2006: 15).

Soziolinguistikaren alorrean ere egin dira gai honi lotutako lanak; Mayoral Asensiok bariazio linguistikoaren itzulpenari buruzko lan bat egin zuen (2000), adibidez. Eredu soziolinguistikoen bidez korrelazioak eta loturak aurki daitezke lekuan lekuko egoera jakin bateko ezaugarrien eta ezaugarri linguistikoen artean (Chesterman, 2006: 16).

Skopos teoriak ere ekarri du itzulpen-ikasketen alderdi soziologikoaren lanketa: bezeroaren egitekoa, itzultzailearen eta bezeroaren arteko negoziazioak eta irakurleen erreakzioak aztertzeaz besteak beste (Chesterman, 2006: 16). Hizkuntza-plangintzari, agiri eleaniztunen ekoizpenari zein itzulpenen kalitate-estandarrei buruzko lanek ere ukitzen dute itzulpenaren soziologia, zeren itzulpenaren soziologiaren egitekoen artean baitaude itzulpenaren merkatuko eragileen jardun-moldea aztertzea, itzultzailearen asebetetzea neurtzea, lan-gatazkak deskribatzea eta lantaldeetako mekanismoak deskribatzea (Chesterman, 2006: 17).

Runcimanen praktika profesionalen teoriari jarraikiz ere azter daiteke itzulpena, eta hainbat alderdi soziologiko nabarmendu daitezke. Asko eta asko dira bide horretatik egin daitezkeen galderak: norekin egiten du lan itzultzaileak? Nola funtzionatzen du lankidetzak? Zer-nolako rola dute beste eragileek? Nola egiten da zuzenketa? Zenbat etapatan? Zer zuzentzen da etapa bakoitzean? Zer motatako baliabide teknikoak erabiltzen dira itzulpen-prozesuan? Nola antolatzen du ergonomikoki itzultzaileak bere egitekoa? Nola egituratzen ditu itzultzaileak dokumentu elebidunak? Zer politikari jarraitzen zaio itzultzaileak hautatzeko? Eragileen arteko adostasunik ez denean, nolako prozedurei jarraitzen zaie arazoak konpontzeko? Nola adierazten da eragileen estatusa? Nola kalkulatzen dira ordainsariak? Saiatzen al dira eragileak euren trebetasunak garatzen? Nola? Akreditazio-sistematik al dago itzultzaile aritzeko? (Chesterman, 2006: 18-21).

Azkenik, aipa ditzagun Latour eta Callon soziologo frantsesek garatutako ANT teoriaren (*Actor-network theory*) itzulean egindako lanak. Eragile bakoitzak esanahiak bere hitzetan «itzultzeko» duen modua aztertzen da teoria horren bidez, eta itzulpen-praktikan aplikatu daitezkeen hainbat ideia jasotzen ditu teoria horrek (Chesterman, 2006: 21-23).

Labur esanik, beraz, hizkuntzaren soziologiak, komunikazioaren soziologiak eta lanbideen soziologiak badute zer ikertu itzulpengintzari lotutako jardunari dagokionez, nahiz eta itzulpen-ikasketetan gehien baliatu izan den teoria

Bourdieuena izan. Ikerketarako askotariko bideei buruz, hauxe diote Diaz Fouces eta Monzó ikertzaileek: «We understand that the range of possible sociological approaches to Translation Studies is not circumstantial, but reflects the very nature of this perspective» (2010: 12).

Itzulpenaren soziologia adar espezifiko gisa landuta, funtsezko artikuluak argitaratu dituzte Gouanvic, Chesterman eta Gambier ikertzaileek *The Translator* aldizkariak gai honi eskainitako monografiko batean (2005). Bestalde, itzulpenaren soziologia adarraren eratze-prozesuari buruzko monografikoa argitaratu zuten Wolfek eta Fukarik 2007an: *Constructing a Sociology of Translation*, eta Diaz Foucesek eta Monzó *Applied Sociology in Translation Studies, Sociologia aplicada a la traducción* zenbakia eskaini zuten *MonTI 2* aldizkarian (Diaz Fouces & Monzó, 2010).

2.2. Itzulpenaren soziologia: sailkapenak eta alorrak

Aterki-kontzeptua (*umbrella concept*) da «itzulpenaren soziologia» Wolfen arabera (2007: 13), soziologiaren ikuspegitik itzulpenari buruz egindako lanak biltzen dituena. Haren ustez, hainbat azpialor bereiz daitezke itzulpenaren soziologian: itzulpen-prozesuaren soziologia, itzulpen-produktuaren soziologia eta itzulpen-ikasketen soziologia:

It seems as though several different «sociologies» can be identified so far: one which, in the classical sociological tradition, focuses on the agents active in translation production, another which emphasizes the «translation process», while a «sociology of the cultural product» scrutinizes the construction of social identities. A cluster of approaches delivers the theoretical and methodological groundwork for a view of translation and interpreting as a social practice, drawing on the works of various sociologists, and, very recently, some articles have also engaged in what can be subsumed under the label of a «sociology of translation studies» (Wolf, 2007: 13-14).

Chestermanek, ostera, ondoko azpialorrak bereizten ditu: itzulpen-produktuen soziologia, itzultzaileen soziologia eta itzulpen-prozesuaren soziologia (2006: 12).

Ganbierrek, bere aldetik, hiru azpialor hauek bereizten ditu *socio-translation* terminoarekin izendatzen duen itzulpenaren soziologiaren alorrean: itzulpen-produktuen soziologia, itzultzaileen soziologia eta itzulpen-ikasketen soziologia (*socio-translationologie* izena ematen dio azken horri) (Gambier, 2006: 39-40). Aztergai hauek zerrendatzen ditu itzultzaileen soziologiaren azpialorrean: itzultzaileen bizitza-memoriak, itzultzaile profesionalen ibilbideen soziografia, gazte lizentziatu berrien jarraipena eta talde-lanaren azterketa. Itzulpen-produktuen azpialorrean, ostera, honako hauek zerrendatzen ditu: itzulpena nazioarteko harremanetarako estrategia gisa, itzulpen-beharren eta -eskarien azterketa (sektoreka, adibidez), itzulpenen funtzioak, itzulpenak laguntzeko diru-sariak. Azkenik, itzulpen-ikasketen diziplinari buruzko azterketa soziologikoarekin lotzen ditu ikergaiok: diziplinaren beraren estatusa eta egitura, biltzarretako gaiak, bildumak, antologiak, itzulpen-ikasketetako eskola eta ideien zirkulazioa, eta abar (*idem*).

Honako azpialor hauek zerrenda daitezke, hortaz, batarenak eta bestearenak aintzat hartuta: itzultzaile eta eragileen soziologia, itzulpen-prozesuaren soziologia, itzulpen-produktuen soziologia eta itzulpen-ikasketen soziologia.

Itzultzaile eta eragileen soziologiari dagokionez, modu indibidualean jarduten duten pertsonetan jartzen da arreta, itzulpen-prozesuan parte hartzen duten gizakiengan; oro har, itzultzaile eta eragileen profilak eta potretak eraikitzea izaten da asmoa, pertsona horien ezaugarriak eta pentsamenduak deskribatzea, eta itzultzaileen rolaz egiten da gogoeta. Itzulpen-prozesuaren soziologiaz denaz bezainbatean, itzulpen-estrategia zehaztetan jartzen da arreta, lan egiteko moduan zein lanari buruzko diskurtsoan. Itzulpen-produktuen soziologiak itzultitako literatur lanen nazioarteko transferentziari begiratzen dio, literatur lan batek egiten duen ibilbideari, alegia. Azkenik, itzulpen-ikasketen soziologia diziplinaren beraren soziologia egitean datza (Wolf, 2007: 14-27).

Itzulpen-ikasketen soziologiaz ari da Gambier «Y-a-t-il place pour une socio-traductologie?» izeneko artikuluan (2007). Gambierrek bi ikuspegitan aurkezten du itzulpen-ikasketen soziologia: batetik, itzulpen-ikasketen historiazioa; bestetik, eremuko erakunde eta jarduerak. Gambierrek beharrezkotzat jotzen du ikertzaileen erreflexibitatea, hots, ikertzaileek autoanalisia egitea (Gambier, 2007: 208). Halaber, eremuaren historiografiaren falta sumatzen du:

Mais l'auto-socio-analyse des chercheurs doit faire écho désormais l'élaboration d'une archéologie des discours en traductologie, d'une historiographie du champ qui ne soit pas cumulative et fractionnée (Lambert 1993; D'Hulst 1995). L'élaboration d'encyclopédies, de «readers», d'anthologies est un signe en ce sens.

D'autres orientations d'une socio-traductologie sont possibles, notamment celle portant sur les institutions et les activités contemporaines du champ (Gambier, 2007: 210).

Itzulpen-ikasketetako erakundeen eta produktuen azterketaren beharraz ere egiten du oharra Gambierrek:

Pour promouvoir sa relative autonomie comme (inter)discipline, la traductologie a dû se donner des instances. L'expansion de celles-ci doit répondre à quelques questions comme celle de leur distribution (internationale, transnationale, régionale et nationale) et celle de leur spécialisation (par exemple, traduction/localisation). Peut-on parler, et à quelles conditions, de «centres» et de «périphéries» pour ces instances? (Gambier, 2007: 211).

Erakundeez ari delarik aipatzen ditu elkarteak, doktorego-eskolak, itzultzaile-eskolak, prestakuntzarako eta irakaskuntzarako guneak, nazioarteko biltzarrak zein diru-laguntzak ematen dituzten erakundeak, eta, itzulpen-ikasketen produktuez denaz bezainbatean, honako galdera hauek plazaratzen ditu: nork idazten ditu ikerketak? Zein hizkuntzatan? Non argitaratzen dira? Nabarmentzen den gairik ba ote dago? Zein lan egiten zaie erreferentzia gehien? Nor dira ebaluatzaileak? Nor ebaluazio-batzordeetako kideak? Nork egiten ditu lanen laburpenak? Nola zirkulatzen dute teoriak? Bestalde, Gambierren ustez, itzulpen-ikasketetako idazkien artean kontuan hartzekoak dira aldizkariak, bildumak, antologiak eta eskuliburuak,

itzulpenari buruzko hiztegi eta entziklopediak, eta bibliografiak. Hortaz, nolabait, hiru mailatako erreflexibitatea behar litzateke: ikertzailearena, eremuarena eta erakundeena (Gambier, 2007).

Itzulpen-ikasketen eremua egon badagoela dio Gouanvic ikertzaileak, baina zalantza egiten du itzulpen-eremurik badenetz (2007). Hasteko, obren itzulpenen espazioa (literaturaren eremua) eta itzulpen-ikasketen eremua (eremu zientifikoa) ezberdindu behar direla dio, eta honako ohar hau egiten du:

Il n'est pas impossible que la traduction soit construite comme un champ à certaines époques et dans certaines cultures (quoique nous n'en ayons pas d'exemple). Pour cela, il conviendrait que les productions traduites et reçues dans une culture soient dotées, d'une part, d'une autonomie qui les fassent reconnaître comme des produits spécifiques, distincts des productions indigènes et, d'autre part, qu'elles manifestent des enjeux qui ne valent essentiellement que pour elles. Si la première condition n'est pas trop difficile à remplir, la seconde paraît beaucoup plus problématique, car les genres littéraires (pour ne parler que de littérature) sont manifestement des configurations qui trouvent d'abord à se réaliser dans les cultures indigènes cible, les traductions ayant pour effet de contribuer fondamentalement à faire bouger les hiérarchies de goûts socio-esthétiques dans des cultures (Gouanvic, 2007: 81).

Eremu espezifikoei dagozkien itzulitako testuak, nolabait. Hala, Gouanvicen hitzei jarraikiz, testu zientifiko baten itzulpena zientzia-testuaren eremuari dagokio; eta literatur testu baten itzulpena, literatur eremuari. Bielsa Mialetek zehazten duenez,

(...), two significant differences between literary translation and technical translation must be pointed out. Firstly, in literary translation, the author and the source text usually enjoy a socialized position so that translations tend to be considered second order productions, devoid of originality and subservient to the original text. Secondly, literary translation implies transfer of cultural capital, while so called technical translation is primarily viewed as a transfer of information (Bielsa Mialet, 2010: 157).

Eremu bakoitzak bere asmoak eta balio sinboliko jakinak dituela ikus dezakegu. Bada, itzulpenaren soziologiaren egitekoa da balio kultural eta sinboliko horrek historian zehar jokatutako papera aztertzea:

The predominance of national literary histories and their focus on literary production narrowly conceived in terms of creation of original works to the exclusion of the significant role played by rewritings, has tended to obscure the import of these exchanges, both in quantitative and qualitative terms. In addition, a sociology of translation must be concerned with investigating its role in the transfer of cultural capital, which has until recently similarly been neglected in sociological accounts (Bielsa Mialet, 2010: 158).

Itzulpen-ikasketen eremua egon badagoela ez du zalantzarik egiten, ordea:

Le champ de la traductologie est un champ au plein sens du terme. Il a émergé dans les années 1970 et au début des années 1980, et possède ses agents, ses institutions, ses programmes universitaires de maîtrise et de doctorat, ses colloques, ses recherches, et ses enjeux propres (Gouanvic, 2007: 81-82).

Euskal itzulpengintzaren eremu bat bada gurean, bai eta euskal itzulpenikasketen eremu bat ere, bada, lehenbizikoaren azterketa egitea dagokio bigarrenari, eta hurrengo puntuan ikusiko dugunez, itzulpenaren soziologiak orain arte jorratu gabeko hainbat ikerketa-bide zabaltzen ditu.

3. Itzulpenaren soziologia: euskal itzulpengintzaren historia egiteko tresna

Itzulpena gizarte-jarduera denez gero, itzulpena aztertzekeo darabilgun metodologia ere horren arabera zorroztu behar da Wolfen ustez:

It is without doubt that the social constraints and dynamics that are inscribed in the materiality of the translated text and in its discursive strategies, call first and foremost for the fostering and the refinement of the methodologies which are required to deal with such a line of reasoning. Without a close cooperation between the various disciplines involved, such a goal cannot be approximated (Wolf, 2011: 24).

Itzulpenaren soziologiak ezinbesteko tresnak ematen ditu itzulpen-produktuak kokatzeko eta ezaugarritzeko eta euskal itzulpengintzaren espezifikotasunak kontzeptualizatzeko. Bestalde, teoria sistemikoek barne-hartzen ez dituzten balioak eta egoerak kontuan hartzeko eta erlazionatzeko ere baliagarri da. Atal honetan itzulpenaren soziologiak euskal itzulpengintzaren historia aztertzekeo eta horren espezifikotasunak kontuan hartzeko eskaintzen duen baliagarritasuna ikusaraziko dugu, Ibarluzea 2017 doktorego-tesian azaldua eta praktikan jarria oinarri harturik.

Hain zuzen ere, *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itultzailak fikzioan* lanean (Ibarluzea, 2017) Bourdieuren eremuen teoriaren arabera definitzen da euskal literatura itzuliaren barne-eremua, eta horrez gainera, eremu horren hiru errepresentazio mota aztertzen dira: eremuaren beraren egiturako erakundeak⁷, literatur historiografiatako diskurtsoak⁸ eta fikziozko lanetako agerpenak. Arestian esan bezala, lan hori oinarri harturik, eta lan horretarako baliagarri izan zenez gero, atal honetan azaldu gura da zertan den baliagarri Bourdieuren eremuen teoria euskal itzulpengintzaren historia aztertzekeo.

Bourdieuren eremuen teoriaren kontzeptu nagusiak honela laburbildu daitezke⁹: harreman historiko objektiboek eta botere-sareek edo kapitalak (*capital*) baldintzatutako posizioen sarea da eremua (*champ*), eta sare horrek norbanakoarenean utzitako lorrata da, ostera, habitusa (*habitus*). Eremuetan egitura, arau, jokamolde, pentsamolde, ideia, erronka, praktika... zehatzak gertatzen dira. Euskal itzulpengintzaren eremua eta eremuaren historia ikuspegi

7. Kapitulu horretan jorratutakoak ikusi artikulu honetan: «Euskal literatur itzulpengintza garaikidea: egituratzen ari den barne-eremua» (*Euskera*, 62-2 zk., 343.-373. or.).

8. Kapitulu horren berri jasotzen da modu laburtuan «Basque translation in the structure of basque literary historiographies» (*1611: revista de historia de la traducción*, 2017, 11) artikuluan. Online dago eskuragarri: <<http://www.traduccionliteraria.org/1611/art/ibarluzea.htm>>.

9. Labur beharrez, ezin izan diogu Bourdieuren teoria zehazteari tarte gehiago eman. Zehaztasunetarako, ikusi Ibarluzea 2017: «2.2.1. Bourdieuren soziologia edo eremuen teoria: kontzeptu nagusiak» atala.

soziologikoaren bidez aztertzeko, ikertzaileak eremuari lotzekoak diren egitura, eragile, pentsamolde, jardunbide... horiek guztiak identifikatzea eta deskribatzea da.

Bourdieuak berak zerrendatzen ditu eremuen teoria aplikatzeak zabaltzen dituen bide nagusiak (2013): kasu jakin bat balizko kasuen sistemaren barruan aztertea; homologiei erreparatzea; metodo tipologikoaren aldean, harreman-sistemak aditzera ematea; eremuen eta kapital moten arteko erlazioak ikusaraztea; eta, eremu bakoitzean joko zehatz batean jolasten garenez gero, joko hori kasu espezifiko bakoitzean definitzea (Bourdieu, 2013: 12-13). Hala, ikertzailearen egitekoa eremu bakoitzaren posizio eta forma espezifikoa identifikatzea eta deskribatzea da. Beraz, euskal itzulpen-eremuaren (eta eremuaren bilakabidearen) deskribapena osatzeke dagoen honetan, Bourdieuren teoria baliagarri zaigu euskal literaturaren eta itzulpengintzaren garaian garaiko espezifikotasuna agerrarazteko.

Eremua dinamikoa denez gero (Bourdieu & Wackquant, 1992: 24-25), praktikak, erakundeak, posizio-hartzeak, jarrerak, harremanak, esku-hartzeak, elkarreraginak eta tentsioak... aldatuz doaz; izan ere, eremuaren dinamikaren hatsarrea egituraren beraren konfigurazioa da, eremu barruko indarren arteko distantzia (*idem*: 77). Hain zuzen ere, dinamikan parte hartzen duten elementuen konbinazioak zehazten du garaian garaiko euskal literatura itzuliaren (barne-)eremua. Itzulpengintzaren historia egiteko, beraz, eremuaren posizioa, egitura, agenteak, erlazioak, balioak eta eraginak aztertu behar dira garaiz garai, Bourdieuk proposatutako hiru mailetan (Bourdieu & Wackquant, 1992: 80): a) Nola kokatzen da eremua botere-eremuaren aldean edo beste eremu batzuen aldean? b) Nola egituratzen dira eremuan parte hartzen eta borrokatzen diren erakundeak? eta c) Nolakoa da eremuan parte hartzen duten eragileen habitusa?

Baina eremu barruko harremanez haratago, beste eremu batzuekiko loturek eta sareek ere aztergai izan behar dute. Boschettiren (2010: 99-109) ideiak ekarrita, literatur ekoizpenari eragiten dioten kanpo-baldintzak hauek dira: erregimen politikoa, merkatua, prentsa eta lanaren banaketaren bilakaeratik jaiotako gizarte-mikrokosmosak; hots, batez ere jarduera intelektualen eremuak. Hala, albo-eremuekiko mendekotasunaz gain, beste eremu batzuekiko autonomiaren eta/edo beste eremu batzuek hautemateko moduaren arabera ere deskribatzekoa da euskal literatura itzuliaren (barne-)eremua. Gurean, Ibarluzea 2017 lanak historiografia literarioak aletzean ikus daitekeenez, eta Lasagabasterrek (2007) literatur eremuaren autonomizazioaz dioenari jarraikiz, esan dezakegu, adibidez, XVIII. mendera arte seguruenik bat datozela eremu erlijiosoak, literarioak eta itzulpenak hartutako esparruak. Esan dezakegu, halaber, XX. mendean eman zirela literatur eta itzulpen-eremuak bereizteko lehen pausoak, eta XX. mendetik aurrera hasi zela autonomizazioa, eremu bakoitzak bere egitura propioak sortuta. Ibarluzea 2017 lanean, esaterako, aro horri jartzen zaio arreta, baina, tesi horren ondorioetan azaltzen den moduan, euskal itzulpengintzaren ikertzaileen egitekoa da horiek horrela gertatu direla frogatzea eta garaian garaiko sareak, egiturak, loturak, errepresentazioak eta abar zehaztea eta deskribatzea.

Ildo horretan, ez da nahikoa garaian garaiko eremuko ekoizpenari buruzko datuak aztertzea. Horretaz gain, aztertzen ari garen eremuak inguruko eremuekin dituen harremanetan ere jarri behar da arreta (Bourdieu: 1990: 15). Itzulpenen kopuruak literatur ekoizpenaren ehunetik zenbat betetzen duen ez da nahikoa, adibidez, literatur eremu bat periferikoa edo zentrala den erabakitzeo (Santana, 2012); eremuen arteko harreman eta prozedurek zehazten dute zer-nolakoak diren egitura eta loturak. Santanaren lanean irakur daitekeenez (2012), euskal literatur itzulpenen ehunekoa eta Espainiako gainerako hizkuntzetan egiten dena kopuruan antzekoak izanagatik, oso ezberdinak dira itzulpen-katalogoak, hizkuntza-konbinazioak... Bada, aurreko horiek zer-nolako indar-sarek eragiten dituen bistaratzea da ikertzailearen egitekoa.

Euskal literatura itzuliaren (barne-)eremua aztertzeko ez dugu soilik kontuan izan behar zer-nolako sistema osatzen duen hizkuntza-norabide jakin batean egindako itzulpenen ekoizpenak (adibidez, euskarara ekarritako itzulpen-sistema); halaber, kontuan hartu behar da euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindakoa (ildo horretan, autoitzulpenak eta beste hizkuntza baterako itzulpenenak sustatzeko ahaleginak itzulpen-aro jakinak ezaugarritu ditzakete gurean); edo hizkuntza berean egindakoa (euskaratik euskarara egindako itzulpenek itzulpenaren eta literaturaren historiaren aro jakin bat ezaugarritu dezakete). Ezen, Inguilleri (2005), Mundayri (2008) eta Wolfi (2017) jarraikiz defendatu dugunez, itzulpena ez baita hizkuntzen artean egiten, gizarte-esparruen artean baizik, eta halaxe deskribatu behar da sasoirik sasoi. Era berean, Sapiro (2014) zehazten dituen eremuen funtzio ekonomiko, ideologiko eta sinbolikoak kontuan hartuta, garaiz garai aztertzekoa da unean-unean euskal itzulpengintzak bete izan duen funtzio nagusia. Garrantzi handia du horrek gurean, lotura zuzena baitu darabilgun hizkuntzaren eta kulturaren estatusarekin, eta eremuko agenteen ideologiarekin edo identitatearekin; izan ere, Bourdieuk (1991) dioenarekin bat, ekoizpen urriko eremuetan kapital sinbolikoak indar handiagoa izan ohi du beste eremu batzuen aldean. Euskal literatura itzulia deritzogun (barne-)eremua eremu eleaniztuna da, eta darabilgun hizkuntzetako bat txikia. Itzulpenerako a hizkuntza edo b hizkuntza edo c hizkuntza erabiltzea hautu bat da, adibidez. Hizkuntza-hautuaren araberrako eragileen pertzepzioak, jarrerak eta jardunak «habitus» nozioari jarraikiz azal daitezke. Nozio horren bidez azal daitezke, halaber, zenbait eragileren posizio-aniztasunak edo posizio-aldatzeak edo beste eremu batzuekiko loturak eta horiekiko esperientzia afektiboak izatea: «(...) su modelo implica la reconstrucción precisa de las relaciones del sujeto con los diferentes microcosmos que atraviesa en su trayectoria y de las relaciones complejas que el campo literario mantiene con otros campos» (Boschetti, 2014: 82). Bada, horiek guztiak ere ezaugarritu ditzakete euskal itzulpengintzaren historiako aroak.

Esan bezala, oso kontuan hartzekoa da gurean euskal literatura itzuliaren eremuko zenbait eragileren posizio-aniztasuna: itzulpengintza garaikideari begiratuta, idazle batzuk, esaterako, itzultzaile dira, baita akademiako kide ere; bestalde, badira sorkuntza egiteko itzulpena bitarteko gisa darabilten idazleak. Hala agertzen dute, adibidez, Arkotxa bezalako idazleek (Ibarluzea, 2017). Bada, hain zuzen ere, posizio bakoitza zerk ezaugarritzen duen eta posizio bakoitzetik zer-nolako diskurtsoa

sortzen den oso interesgarria da, horrek baldintzatu egiten baitu itzulpen-jarduna eta itzulpenaren inguruko pertzepzioa, norbanakoarena eta taldearena¹⁰.

Bourdieuaren teoria soziologikoak itzulpen-eremuaren funtzioak deskribatzeko eta sailkatzeko marko egokia eskaintzen digu, eta aztergai dugun eremuaren espezifitatearekin lot daiteke, gainera, euskal itzulpenak askotariko funtzioak bete izan dituelako historian zehar eta gaur egun ere. Oro har, euskal itzulpenaren historiari erreparatuz gero, esan daiteke itzulpena tresna erlijiosoa, dialektologikoa eta apologetikoa izan dela euskal testuen historian; alegia, itzulpena baliatu izan dela helburu politikoekin, administratiboekin, ekonomikoekin, didaktikoekin, eta baita, jakina, literarioekin ere. Bada, itzulpenak literaturaren espazioan izandako funtzioen azterketa zehatza egitear dago euskal itzulpengintzaren historian, hurbilpenen bat egin bada ere¹¹. Sapiro (2014) hiru funtzio esleitzen dizkio itzulpenari, itzulpena jarduera soziala den aldetik: «La traduction peut en effet être envisagée comme une activité sociale dont les fonctions, loin de se réduire à la médiation, sont multiples. Elles se répartissent en trois grandes catégories: idéologiques, économiques, culturelles» (2014: 94). Hiru kategoria handitan sailkatzen ditu, hortaz, itzulpenaren funtzioak: ideologikoak, ekonomikoak eta kulturalak.

Bourdieuaren kontzeptuak eta analisi-mailak baliagarri zaizkigu euskal itzulpengintzaren eremu gisa definitutako harremanen eta dinamiken multzoak literaturaren espazioan (eta modu orokorrago batean baita kulturaren espazioan edo espazio globalagoetan ere) izandako harremanak kokatzeko eta parte hartu duten eragileak identifikatzeko eta aztertzeko, harreman-sareak ikusarazteko, eta jokoan diren balioei buruzko gogoeta egiteko. Hala, gisa honetako galderari erantzuten lagunduko digu Bourdieuaren unibertsoak: zerk definitzen du zehazki euskal itzulpen-eremua? Bourdieuk berak darabilen jokoaren metafora geure eginda: zer dago jokoan euskal itzulpen-eremuan? Nork banatzen ditu kartak eta zer kartak du balio handiena?

Bourdieuaren teoria aplikatzeak itzulpen-ikasketei ekar diezaikekeen onurez ari da Gouanvic, eta ikertzailearen hitzak ekarrita (2010: 128), itzulpenaren ekoizpenean zein harreran eta zabalkundean parte hartzen duten eragileen azterketak itzulpena baldintzaten duten indarrak azalarazteko balio du, kasu zehatz batean itzulpenari esleitzen zaion balio sinbolikoa zehazteko, eta etikari, zentsurari, erresistentziari, botere-borrokei zein itzulpenaren mugei buruz aritzeko. Guztiz bat datoz ideia horiek eta euskal eremuko itzulpengintzaren balizko azterketa, ez baitugu ahaztu behar dagokigun eremua espezifikoa dela, ezaugarri propioak dituela eta, besteak beste, euskal literatura ukitzen duen itzulpen-eremuko indarrak eta harremanak ez direla beste hizkuntza batzuetako itzulpen-eremuetako berak.

10. Euskal itzulpengintzaren eremuan, *habitus* kontzeptua lantzen eta ikertzen da, zehazki, Ibarluzearen «The Translation Habitus of Contemporary Basque writers» (*Estudios de traducción*, 2015, 5) eta «Urrerabizkaiaren eta Sarrionandiaren itzulpen-habitusak» (*Fontes*, 2016, 122) artikuluetan. Halaber, habitusaren agerpen fikzionala aztergai da Gandarak eta Ibarluzeak sinatzen duten «Representaciones transtextuales y heterolingües (para la memoria) en la novela *Manu militar*» artikuluan (*Fontes*, 2018, 128).

11. Euskal literatura itzuli garaikidearen funtzioei buruzkoa da Ibarluzeak eta Olaziregik 2016an sinatutako artikulua: «Autonomización y funciones del subcampo de la traducción literaria vasca contemporánea: una aproximación sociológica» (Pasavento, IV, 2, 2016). Online eskuragarri: <http://www.pasavento.com/pdf/02Ibarluzea_Olaziregi.pdf>.

Bereziki interesgarria da, halaber, itzulpenaren mugei buruzko auzia guri dagokigun eremuan, bai eremuaren beraren mugei dagokienez («zer da euskal literatura?», «zer da euskal itzulpen-eremua?»), bai itzulpenaren beraren mugei dagokienez (euskal literaturaren historian modu indefinituan aurkezten dira sarri; esaterako, itzulpen/egokitzapen batzuk jatorriz euskaraz sortutako lanen aldean). Bada, eremua erronka beren inguruan ari diren eragileen ingurune gisa definitzeko eta eremuko produktuak erronka jakin bati jarraikiz aurkezten diren produktuak legetxe definitzeko eta artikulatzeko modua ematen du Bourdieuren teoriak, eta egoki zaigu planteamendu hori euskal literaturako hainbat fenomeno aztertzeko.

Bielsa Mialetek (2010), bere aldetik, hiru ardatzen inguruan egituratzen du ikuspegi soziologikoaren ekarpena. Lehenenik eta behin, nazioaren mugak gainditzeko baliabide ezin egokiagoa dela dio (Bielsa Mialet, 2010: 168), eta nabarmentzen du tresna erabilgarriak eskaintzen dituela Bourdieuk literaturaren historia espezifikoa aplikatzeko, eremuetako sareak eta posizioak aztertzen badira eta garapen historikoa begiratzen bazaio. Bourdieu bera eremu nazionalean zentratu bazen ere, beste ikertzaile batzuek ondo erakutsi dute Bourdieuren teoria nazioarteko eremuen azterketari aplikatu dakiokela (Bielsa Mialet, 2010: 168):

A perspective that places translation at the centre serves to leave behind a national or comparatist angle and to assume a renewed understanding of the global circulation of literature as based on highly unequal international exchanges, which are essential in the constitution of the global literary field.

(Bielsa Mialet, 2010: 169)

Gure ikerketarako interes berezia du nazioaren muga ezabatzeak: batetik, itzulpena bera, oro har, nazioartean gertatzen delako askotan nahiz eta nazio eleaniztunetan —kasurako, nazio barnean— ere egin daitekeen, eta, bestetik, euskal kultur eremuak berak bi nazioaren esparruen mugak gainditzeko dituelako (diaspora ere ezin daiteke ahaztu, gainera). Bada, Bourdieuren teoriak bidea ematen digu euskal kultur eta literatur espazio transnazionala jorratzeko, euskal eremua espazio globalean kokatzeko bidea; izan ere, eremuak eragindako efektuaren mugak dira eremuaren mugak¹².

Euskal literatura itzuliaren eremuko parte eta partaide da eremuak eragiten dion oro eta eremuan eragiten duen oro; hortaz, eremuak berak definitzen du eremuaren esparrua, eremuak eragindako efektuaren irismen-mugak dira eremuaren mugak (Bourdieu & Wacquant, 1992: 75-76). Hala, euskal literatura itzuliaren (barne-) eremuko parte dira nola euskaratik euskarara egindako itzulpen intralinguistiko edo interdialektalak, hala dialekto jakin batera egindakoak eta horiek sustatu dituzten agente eta eragileak; nola euskarara itzultzen diren bildumak, hala euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultzeko ematen diren laguntzak; nola argialetxe

12. Nazioaren muga gaindituta eta euskal itzulpenaren espazioa transnazionalizatuta jota baino ezin daitezke azaldu, esaterako, lekuan lekuko itzulpen-politikek katalogoetan eragindako aldeak, hartzaileek itzulpenari buruz dauzkaten jarrera ezberdinak (indarrean diren eragileek ideia jakin batzuk zabaltzen dituzten aldetik), euskal literatura atzerrian sustatzeko egindako testu-hautuak eta itzulpen-estrategiak... Halaber, modu horretan baino ezin daiteke azaldu, adibide baterako, jatorrizko eremutik sustatutako itzulpenen zirkulazioa nola gertatzen den. Ildo horretan, argigarria da Manterolak (2011) egiten duen gogoeta, beheago xehatuko duguna.

jakin baten bildumakoak, hala idazle batek ariketa legez egiten dituenak. Halaber, euskal literatura itzuliaren (barne-)eremuko partaide dira itzultzaile profesionalen elkarteak, enpresak, langile autonomoak, erakundeak, argitaletxeak, hizkuntza- eta kultur politikak, edizioaren merkatuari lotutako arau eta legeak... Horrenbestez, garaian garaiko ezaugarri-konbinazioek zehazten dute zer/nolakoa den (barne-)eremua sasoirik sasoi eta nolakoa izan den halako edo bestelako eraginaren arabera bilakabidea. Euskal letren historian ez da eremu beregaina izan euskal itzulpenarena (ezta literatur itzulpenarena ere): beste eremu batzuekiko (erlijiosoa, politikoa...) harremanean deskribatu behar da nahitaez. Bada, horien guztien azterketa sistematikoa egiteko dago euskal itzulpengintzaren eremuan.

Bigarrenik, Bielsa Mialeten esanen arabera, itzulpen-ikasketetan hain zabal ibilitako «testua eta testuingurua» dikotomia ezabatzeko balia daiteke Bourdieuk eskaintako tresneria, hots, testuaren eta testuinguruaren elkarreaginean sakontzeko bidea ematen digu (Bielsa Mialet, 2010: 169). Halaber, testuingurua zehazteko tresnak eskaintzen dizkigu: «El concepto de campo literario ha precisado el sentido de la noción de contexto, ya que implica la reconstrucción sistemática de un conjunto de relaciones dinámicas variables (...)» (Boschetti, 2014: 94). Bereziki garrantzitsua da hori gure eremuan, sarri testuinguru guztiz ezberdinak baititugu eremu beraren barruan, dela espazioari lotuta, dela garaiari lotuta.

Bestelako dikotomiak ezabatzeko modua ere eskaintzen du Bourdieuk. Esaterako, itzulpenaren eta egokitzapenaren arteko muga. Badira, edonola ere, azterketarako ezaba daitezkeen bestelako dikotomiak ere; kasurako, itzulpenen ikerketan sarri baliatu izan diren hizkuntza-norabideak edo xede-sistema eta jatorri-sistema bereiz aztertzea (euskaratik edo euskarara itzultzen ote den, alegia). Ildo horretan Ibarluzea euskaratik eta euskarara egiten diren itzulpenak biltzen ditu euskal literatur itzuliaren barne-eremuan. Alegia, barne-eremu norabide anitzekoa eta transnazionala dela dio (Ibarluzea, 2017).

Touryk eskaintzen digun polisistemen teoriaren arabera, xede-sistemaren barruan aztertzekoa da itzulpena. Baina, gure ustez oso kontuan hartzekoak dira euskal literaturaren espazioan, adibidez, «jatorri-sistemak» sustatutako itzulpena eta kanporako egindako itzulpenak «jatorri-sisteman» duen eragina. Ez da ahaztu behar, gainera, zenbait itzulpenen «jatorri- eta xede-sistemak» berberak direla (euskaratik espainolera itzultitako obra askok merkatu bera dute gurean, adibidez). Halaber, lehenago genioen euskal itzulpengintza hizkuntza eta kultura anitzeko sistema konplexu batean txertatuta dagoela, eta Touryk eskaintzen duen polisistemen teoriak zenbait muga dituela hura osotasunean deskribatzeko. Dagokigun gaiari lotuta, Manterolak muga horiek nabarmendu zituen bere tesian metodologiari eskaintako kapituluan:

Guk ere, hemen aurkezten dugun lan honetan, ez dugu guztiz bat egin Touryrek in puntu horretan, gure gaiak hala eskatuta. Gure azterketa egiteko, jatorrizko kultura eta jatorrizko hizkuntza hartu ditugu abiapuntu. Hizkuntza batean idatziriko literatura eta bertatik eginiko itzulpenak izanik abiapuntu, xede hizkuntza ezberdinetan kokatuko dugu gure azterketa. Liburu horiek xede hizkuntzetako eta xede kulturetako zati dira Touryk aitortzen duen moduan, baina gure lanaren bitartez, jatorrizko kulturaren zati

ere badirela erakutsiko dugu; itzulpen horiek egin izanak jatorrizko kulturaren duen eragina aitortuko dugu, eta jatorrizko lanaren estatusa ere alda dezakeela erakutsi. Jatorrizko kultura xede kultura ere badela neurri batean, hain zuzen ere. Bestalde, sarritan, itzulpenak jatorrizko kulturak bultzatuta egin izan dira, eta ez xede kulturak eskatuta preseski. Kolonialismo garaian, esaterako, kultura dominanteek bultzatuta sortu ziren itzulpenak, ez kultura dominatuek eskatuta (Even-Zohar, 1990: 68-69). Biblia ere Kristautasuna munduan zehar zabaltzeko Elizak nahi izanda itzuli da, ez xede hizkuntzetako hiztunen eskariz. Euskal Herritik bultzatutako itzulpenen kasuan, jatorrizko kulturak jarritako diruz bultzatu badira itzulpenak, ezin esan dezakegu xede kulturaren produktu huts direnik (Manterola, 2011: 54).

Itzulpena norabideetatik haratago doan prozedura konplexua dela argi dago, beraz; eta norabide anitzeko eta elkarreragiten duten indar-sareak deskribatzeko metodologia egokia eskaintzen digu Bourdieuren «eremu» kontzeptuak, betiere dikotomietatik haratago. Gurean, gainera (gorago aurreratu dugunez), nazio kontzeptutik haratagoko indar-sareak eta jokamoldeak badirela ulertu behar da, bai eta dimentsio anitzekoak direnak ere.

Hirugarrenik: imajinario soziologikoari egindako ekarpena aipatzen du Bielsa Mialetek Bourdieuren ikuspegi soziologikoaren ekarpenen artean (Bielsa Mialet, 2010: 169-170). Garrantzitsua da hori gurean, adibidez, euskal nazioaz zein euskal eremuez ari garenean erronka eta errepresentazio sinbolikoez ari garelako sarri, eta eragileek eta agenteek erronka eta balio sinboliko jakinak dituztelako, eta horien arabera interpretatzen dituztelako, besteak beste, historia eta gainerako espazioetako jardunak. Sistema sinbolikoak harreman soziala irudikatzen du, eta mundua eralda dezake. Bada, mundua eraldatzeko modu bat izan liteke eremu jakin bat sortzea, adibidez, bai eta eremu jakin bati buruzko ideiak eraldatzea ere. Bestalde, eremua eremu-kideek eta erronka komunek definitzen dute, eta, hala, eremuaren azterketan produktuak ez ezik, ideiak ere artikulatu behar dira: ezinbestekoa zaigu hori euskal itzulpen-eremuaren azterketan. Funtsezkoak dira, beraz, ilusio, imajinario edo erronka sinbolikoak; izan ere, euskal kulturgintzari lotutako hainbat jarduera sozialen funtsa jardueraren balio sinbolikoa aztertuta baino ezin daiteke artikulatu.

Boschettik ere ildo bereko baieztapenak egiten ditu, Bourdieuz eta haren lanaz aritzean. Haren hitzetan (Boschetti, 2014: 76), kapital objektibizatua (produktuak) eta subjektibizatua (ideiak) uztar daitezke Bourdieuren kontzeptuei esker; izan ere, norbanakoaren zein taldeen ideiak eta pertzepzioak artikulatzeko modua ematen du Bourdieuk «habitus» kontzeptuaren bidez. «Habitus» kontzeptuak uztartzen ditu jarduera sozialak eta pertsonalak, eta, beraz, eragileen biografiaren eta historiaren bidegurutzean kokatzeko ere balio digu Bourdieuren teoriak (Bielsa Mialet, 2010: 170), lehenago ere aipatu dugunez.

Bestalde, garrantzitsua da esku artean dugun eremuan Bourdieuk eskaintzen duen autonomia erlatiboaren kontzeptua: euskal itzulpen-eremuaren autonomia erlatiboa kontsumitzaile potentzialak handitu izanarekin lot daiteke, eremuan independentzia ekonomikoa handitu izanarekin eta legitimazio- eta kontsakrazio-erakundeak sortu izanarekin. Itzultzaileen eta idazleen arteko harremanak aldatu ote diren galde dezake ikertzaileak, edota zein den autoreen posizioa itzulpen-eremuarekiko zein itzultzaileena literatur espazioarekiko.

Ibarluzea 2017 doktorego-tesian definitu bezala, euskal itzulpen-eremua erlatiboki autonomoa da, jakinik euskal itzulpen-eremua lotuta dagoela, nahitaez, albo-eremuekin zein kokatzen den espazioarekin. Hain zuzen ere lan horretan literatur eremuaren eta itzulpen-eremuaren arteko intersektzioa aztertu zen: itzulpenak euskal literaturan hartu duen dimentsio soziala, historiografikoa eta fikzionala aztertzen da bertan. Izan ere, euskal itzulpengintzaren historia euskal literaturan (edo euskal testuen historian) hasiera-hasieratik existitu da, baina eremu gisa (edo barne-eremu gisa) definitzeko moduko sareak eta elementuak azken mendean egituratu dira, albo-eremuetako (zein itzulpena hartu duten espazioetako) dinamiken garapenaren bidetik. Hain zuzen ere dinamika horiek deskribatzea izan zen gure xedea, literatur itzulpenak bete dituen funtzioen inguruan argi eginez. Ildo horretan, bide berriak jorratu daitezke, itzulpen-eremuak beste eremu batzuekin elkarbanatzen duen espazioaren eta harremanen deskripzioa egitear baitago oraindik.

Ondorio gisa: itzulpenaren soziologiaren bidetik euskal itzulpengintzan jorratu litezkeen zenbait ikerlerro

Ikerketa-programa bat eskaintzen du Bourdieuk, esparru teoriko-metodologiko bat baino gehiago. Programa horietako zenbait alor eta garai baino ez dira jorratu Ibarluzea 2017 lanean, hain zuzen ere, itzulpen-eremu garaikideko erakunde nagusien bilakabidea, itzulpenari loturiko diskurtsoa literatur historiografietan eta itzultzailearen errepresentazio fikzionala literatura garaikidean. Edonola ere, ikerketa-ildoak aberatsak dira horietan sakondu gura duten ikertzaileentzat, dela itzultzaile-eragileen soziologia oinarri hartuta, dela itzulpen-prozesuaren soziologiari jarraituta, dela itzulpen-produktuen soziologiaren barruan, dela itzulpen-ikasketen soziologiari helduta. Bada, ikergai horietako batzuk proposatuz bukatu nahi genuke artikulu hau:

Itzulpen-eremuak garairik garai kokatzea da lan-ildoetako bat; hots, garaian garaiko itzulpenaren funtzioak azaleraztea eta euskal itzulpenaren historiaren piezak lotzen joatea. Horretarako, beste eremu batzuetako ikertzaileekin aritu behar da hartu-emanetan, ezen zenbait hizkuntzalarik eta euskalarik (Arkotxa eta Bilbao Telletxea ditugu gogoan, adibidez), gero eta agerianago dakarte zer-nolako eragina izan duen itzulpenak euskararen historiako zenbait testutan.

Bestalde, ugariak dira itzulpenaren soziologiaren ildotik aztertu beharreko eragileen eta erakundearen sareak; aztertzeko dago, esaterako, kultur bitartekarien sarea (argitaletxeak, editoreak, nazioarteko zein bertako azokek itzulpenari egindako ekarpena, aldizkari espezializatuak...). Adibidez, argitaletxez argitaletxe itzulpen-corpusaren azterketa egin daiteke: zenbat itzulpen, zein bildumatan, zein itzulgai eta zergatik, nola aurkeztu diren eta nola bilakatu diren... eta abar.

Itzulpen-ikasketen eremuari buruzko soziologiari loturik, adibidez, *Senez* aldizkariako artikuluek izandako bilakabidearen azterketa egin liteke: zer-nolako gaiak lantzen ziren eremuaren autonomizazioa hasi aurretxoan? Eta orain? Zer-nolako bilakabidea izan du? Ildo bereko azterketak egin daitezke itzulpena landu izan duten akademikoen ikuspegiari erreparatuta.

Itzulpenaren harrera ere balizko ikerlerroa da soziologiaren ikuspegitik jorratzeko: itzulpen-kritiken azterketa, itzulpenak testuliburuetan izandako agerpena, literatura itzuliaren irakurketari buruzko azterketak, bai eta kultur politikek horretan izandako eragina ere.

Erakunde publikoek (edo pribatuek, mezenasgoaren bidez, esaterako) itzulpenean izandako eragina beste ikerlerro bat da, hots, nolakoa izan da, adibidez, itzulpen-politikan eta laguntzetan gertatutako bilakaera? Horrez gain, nola moldatzen dute nazioarteko sariak eta kontsakrazio-bideek gurera ekarritako literatura?

Itzultzaileen jarduna da beste ikerlerroetako bat: talde-itzulpena, itzulpen-prozesuaren azterketa, itzultzaile-sareak, tresna teknologikoak baliatzeko moduak, itzultzaileen mugikortasuna, itzultzaileek eurek euren jardunaz duten diskurtsoa, akreditazio-sistemak eta prozesuak eta abar. Itzultzaileen profilak eta habitusetan sakondu daiteke itzultzaileen jardun profesionalari buruzko soziologia eginez.

Laburbilduz, eta Roig irakaslearen hitzak gure eginez, eremuen teoriak ahalbidetzen du kultur jarduna ikuspegi supranazionaletik aztertzea, fenomeno transnazionaletan hainbat hizkuntzaren eta espazioren parte-hartzea analizatzeko bidea ematen duelako (Roig, 2014: 22). Hala, itzulpena testuinguru sozial, politiko, ekonomiko eta diplomatikoan azter daiteke, testuak eta hizkuntzak kontuan hartuta, baita beste hainbat eragile aintzatetsita ere: autoreak, itzultzaileak, editoreak, irakurleak edo kritikariak (Roig, 2014: 24)

Zalantzarik gabe, potentzial handiko teoria da eremuena, saihetsetan geratzen dena, kapital sinbolikorik gabe geratzen dena aztertzeko modua ere ematen duelako, eta, hain zuzen ere, esparru horietan ekoizpen-eremuan ez bezalako ondorioak eragin ditzakeelako eremuak. Halaber, eremuen teoriak lekua egiten die gustu-kontuei eta gizarte-errepresentazioei (Roig, 2014: 29). Bourdieuren eremuen teoriak kultur ekoizpen-eremua eremu politikoarekin lotzea ahalbidetzen du, bai eta idazle eta artisten konpromisoarekin ere. Intelektualen historiari, literaturari eta literaturan egindako sailkapenei beste modu batean begiratzeko aukera eskaintzen digu, tradizioko diziplinen mugak disolbatuz eta objektu literarioak objektu historikoak balira bezala aztertuta (Roig, 2014: 33).

Bibliografia

- Baker, M. (2009): *Routledge Encyclopedia of Translation studies*, Routledge, Londres & New York.
- , (2009): «Translation studies», in M. Baker (ed.), *Routledge Encyclopedia of Translation studies*, Routledge, Londres & New York, 277-280.
- Bassnett, S. (2002): *Translation studies (third edition)*, Routledge, Londres & New York.
- Bielsa Mialet, E. (2010): «The Sociology of Translation: Outline of an Emerging Field», *MonTI 2 Applied sociology in Translation Studies*, 153-172.
- Boschetti, A. (2010): «L'explication du changements», in J.P. Martin (zuz.), *Bourdieu et la littérature*, Éditions Cécile Defaut, Nantes, 93-111.
- , (2014): «El campo literario», in D. Roig (ed.), *Bourdieu después de Bourdieu*, Arco Libros, Madril, 71-98.

- Bourdieu, P. (1990): «El campo literario. Prerrequisitos críticos y principios de método» (itzul.: Desiderio Navarro), *Criterios*, 25-28, 20-42
- , (1991): «Le Champ littéraire», *Actes de la recherche en sciences sociales*, 89, 3-46.
- , (2013): «Séminaires sur le concept de champ, 1972-1975», *Actes de la recherche en sciences sociales*, 200, 4-37.
- Bourdieu, P. eta Wacquant, L. (1992): *Reponses: pour une sociologie reflexive*, Editions du Seuil, Paris.
- Chesterman, A. (2006): «Questions in the sociology of translation», in J. Ferreira Duarte, A. Assis Rosa & T. Seruya (ed.), *Translation studies at the interface of disciplines*, Benjamins Translation Library, 68, Amsterdam & Filadelfia, 9-27.
- Diaz Fouces, O. eta Monzó, E. (ed.) (2010): *Applied Sociology in Translation Studies*, Universitat d'Alacant, Universitat Jaume I & Universitat de València.
- , (2010): «What would a sociology applied to translation to be like?», *MonTI 2 Applied sociology in Translation Studies*, 9-18.
- Gambier, Y. (2006): «Pour une socio-traduction», in J. Ferreira Duarte, A. Assis Rosa, & T. Seruya (ed.), *Translation studies at the interface of disciplines* Benjamins Translation Library, 68, Amsterdam & Filadelfia, 29-42.
- , (2007): «Y-a-t-il place pour une socio-traductologie?», in *Constructing a Sociology of translation*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam & Filadelfia, 205-217.
- Gouanvic, J.M. (2005): «A Bourdieusian Theory of Translation, or the coincidence of Practical Instances», *The Translator*, 11, 2, 147-166.
- , (2007): «Objectivation, réflexibilité et traduction. Pour une re-lecture bourdieusienne de la traduction». in *Constructing a Sociology of translation*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam & Filadelfia, 79-92.
- , (2010): «Outline of a Sociology of Translation Informed by the Ideas of Pierre Bourdieu» (itzul.: L. Schultz), *MonTI 2 Applied sociology in Translation Studies*, 119-129.
- Grutman, R. (2009): «Le virage social dans les études sur la traduction, une rupture sur fond de continuité», *Texte, revue de critique et de théorie littéraire – Carrefours e la sociocritique* (Glinoyer, A. zuz.), 45-46, 135-152.
- Guidère, M. (2010): *Introduction à la traductologie (2. ed.)*, de Boeck, Brusela.
- Heilbron, J. & Sapiro, G. (2002): «La traduction littéraire, un objet sociologique», *Actes de la recherche en sciences sociales*, 144, 3-5.
- Ibarluzea, M. (2017): *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan*, Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaragabea).
- Inghilleri, M. (ed.) (2005): *Bourdieu and Sociology of Translation and Interpreting. The Translator*, 11, 2.
- , (2005): «The Sociology of Bourdieu and the Construction of the “Object” in Translation and Interpreting Studies», *The Translator*, 11, 2, 125-145.
- Lasagabaster, J.M. (2007): «Sobre la historia de la literatura vasca: diagnóstico y perspectivas», *ASJU*, XLI-1, 237-248
- Munday, J. (2008): *Introducing Translation Studies. Theories and applications (2. ed.)*, Routledge, Londres & New York.
- Roig Sanz, D. (ed.) (2014): *Bourdieu después de Bourdieu*, Arco Libros, Madril.
- , (2014): «Bourdieu después de Bourdieu. Hacia un nuevo rumbo de la teoría de los campos», in D. Roig Sanz (ed.), *Bourdieu después de Bourdieu*, Arco Libros, Madril, 11-48.

- Santana, M. (2012): «Los mercados de las literaturas en España: la producción literaria», *Revista de Alces XXI*, **0**, 231-251.
- Sapiro, G. (2014): *La sociologie de la littérature*, Editions La Decouverte, Paris.
- Venuti, L. (1995): *The Translators Invisibility: a history of translation*, Routledge, Londres & New York.
- Wolf, M. (2007): «Introduction. The emergence of a sociology of translation», in *Constructing a Sociology of translation*, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam & Filadelfia, 1-36.
- , (2010): «Translation “Going Social”? Challenges to the (Ivory) Tower of Babel», *MonTI 2 Applied sociology in Translation Studies*, 29-46.
- , (2011): «Mapping the field: sociological perspectives on translation», *International Journal of the Sociology of Language*, 207, 1-28.

